

# SEGMENTAZIOA

Gure aplikazioa, adin guztietarako dago pentsatuta, hau da, dibertsifikatutako merkatua da, mota honen baitan dauden enpresek oso bestelako produktuak eskaintzen dizkiete zeharo ezberdinak diren eta elkarren artean loturarik ez duten bezeroen segmentuei. Lau taldetan sailkatuta dago, adinaren arabera: Umeen-atala, gazteen atala, adin-ertaineko jendeen atala eta jubilatuen taldea.

Umeen-atalari dagokionez zenbait aktibitate proposatzen ditugu; adibidez: abentura parkeetarako deskontuak, zenbait plan bere adinarekin lotuta...



Gazteen atalean, bestelako jarduerak eskainiko ditugu: diskoteken sarrerak erosteko atal bat egongo da, zenbait deskonturekin ekitaldietarako (adibidez kontzertuetarako), planak egongo dira nora joan jakiten ez badute, edozein plan egiteko, egin ez dituzten plan batzuk ere egongo dira gazteen atalean.



Adin ertaineko pertsonak ikusiko dute nola jatetxeetarako, kontzertuetarako, planetarako deskontuak izango direla. Mendiko irteerak, umeak + familiak batera egin ditzaketen planak, antzerkia, opera, kirola...ere proposatzen ditugu ala nola ekitaldiak adinarekin lotuta.



Jubilatuen taldeari begira, bidaiak proposatuko diegu edo igandetako dantzak, adibidez.



Irizpide geografikoak kontuan hartuta, Bizkaiko pertsonentzat edo turistentzat bakarrik zuzenduta dago. Bezeroen ekonomia maila edo lanbidea ez da kontuan hartzen aplikazio hau izateko zeren denbora librerako da eta plan batzuk dohainik ez izan arren, beste batzuk badira.